

Lanbide Heziketa, Enpresa eta Gizartea, Errealitatea eta Etorkizuna

Euskadiren hazkundea errealitate industrialean oinarritu da, eta gaur egun, errealitate hori bidegurutzean dago; nora jo behar duen erabaki behar du bidegurutze horretan, eta Lanbide Heziketak zeresan handia du erabaki hori hartzeko garaian.

Errealitate hori duela 150 urte hasi zen, lehenengo industriak finkatu zirenean; industrietan eskulana behar zen, eta jendea gazte-gaztetatik hasi zen lanean, produkzioko baliabide eta metodoetara egokituta. Jendeak ez zuen inolako prestakuntzarik. Industria horiek gizartean integratu ziren, gizarte-errealitatean, eta gizartea industriekin identifikatzera ere iritsi zen. Horrela sortu ziren Bergarako *Mahoneroak*, Arrasateko *Sarrailagileak*, Eibarko *Armagineak*, Beasaingo *Bagoneroak*... Esan gabe doa integratzea lortu zutela.

Urteek aurrera egin ahala, produkzioko baliabide eta metodoak gero eta konplexuagoak ziren, eta Aprendiz Eskolak sortu zituzten enpresetan. Eskola horien bidez, industrietako teknologia espezifikoen gaineko prestakuntza ematen zuten, eskola sortu zuen industria bakoitzak berari zegokiona, eta industria horiek hain errotuta zeuden Herrien Gizartearen itxaropen handietako bat honako hau izaten zen: etxeko haurrek eskola horietan sartzeko aukera izatea. Gizartearen eta Enpresaren arteko lotura oso handia zen.

Urteak joan, urteak etorri, enpresak gero eta konplexuagoak ziren, eta gainera, industria handi horien inguruan beste hamaika enpresa txiki sortu ziren, eremu industrialala sortuz. Era berean, enpresa "klonikoak" ere sortzen hasi ziren, antzeko enpresak sortzeko asmoz independizatzen ziren langile ohien eskutik (mahoneroetan mahoneroenak, armaginetan armaginenak, eta abar). Horren ondorioz, enpresa handiek "outsourcing" esaten zaiona egin behar izan zuten prestakuntza-jarduerarekin, eta herrietan Lanbide Eskolak sortzeko laguntza teknikoa, ekonomikoa eta akademikoa eman zuten, betiere beren enpresa-eremuan espezializatutako eskolak izanik. Garai hartako gizarteak nahi zuen eskola horiek ezartzea, prestakuntza-aukera horiek gizarteratzeko premia baitzuen, eta bazen hori lortzeko lan egiteko prest zegoen jendea, horietako asko eta asko apendiz-eskoletako ikasle izandakoak.

Kasu askotan, jende horrek osatu du Euskadiko ETEen industria-sare osoa abiarazi zuen garai bateko enpresaburuen klasea.

Euskadi osoaren, eta ELAY gure enpresaren eta antzekoen garapen industrialaren gakoetako baten hasiera izan zen hori; garapen horretan partaide izan gara gure 42 urtetako historia osoan eta mugimendu horri etekina ere atera diogu.

"Nik irabazi-zuk irabazi" (win-win) harremana dago Gizartearen, Enpresen eta Lanbide Heziketako zentroen artean: bakoitza garatzen den heinean, guztiak dira onuradun.

Eta Elayk Lanbide Heziketarekin izan duen esperientziari helduta, esan dezakegu Elayren etorkizunerako funtsezko elementuetako bat dela eta izango dela.

Elayk 42 urteko historia du, eta urte horietan guztietan batera eta elkarren ondoan egin dugu aurrera. Ebaketa Zehatzaren merkatuan enpresa liderra da Elay: automozio-sektorerako doitasunezko eta segurtasuneko piezak egiten ditugu eta produktuen % 70 baino gehiago esportatzen dugu. Hori guztia egungo kolektiboaren eta erretiratuen fruitu da, horietako asko Bergarako Lanbide Heziketako Zentrotik etorritakoak izanik (% 70etik gora Goi-mailako Zikloa-LH II, eta % 20 lizentziadun-diplomadunak).

Kolektibo hori gai izan da, gai da, eta gai izango da, lima erabiltzetik hasi eta ISO, TS, CPK, OHSAS, EFQM, SPC, PDCA, 5S, 6SIGMA, Just in time, CRM, B2B eta antzekoetara iristeko. Horretarako, Hezkuntza Zentroaren eta Enpresaren arteko lankidetzak ahalik eta handiena izan da, da eta izango da.

Urte hauetan, hainbat gaitan izan gara lankide; esate baterako:

- Unean uneko errealitatearen eta etorkizuneko premien arteko atzeraelikadura, zentroan irakasteko adar interesgarrienak definitze aldera.
- Lanbide Heziketa behar bezala balioetsia izan dadin laguntzea. Elay enpresan eta inguruan, langabeziarik ez zegoen urtetan, LH I ikasitako ikasleak hasten ziren enpresetan, dirua erraz eta azkar lortzeko asmoz. Egoera horren ondorioz, Lanbide Heziketako Zentroen, enpresen, gurasoen eta, oro har, gizartearen artean hausnarketa egin zen eta honako hau proposatu: unean uneko LH II baino maila txikiagoko lanbide-heziketa zuten ikasleak ez kontratatzea. Horri esker, zenbait ikasle ikasten jarraitu zuen, gutxienez LH II eginda (ELAYn oraindik eusten diogu baldintza horri).
- Inguruko beste enpresa askorekin batera, makineria erosteko lankidetzak, prestakuntza-baliabide onenak lortzearen.
- Makina zaharrak garapen bidean dauden herrialdeetara (Venezuelara) bidaltzea, lanbide-heziketa sustatzearen.
- Urtero, praktiketako ikasleak hartzen ditugu, haien prestakuntza akademikoa osatze aldera.
- Urtero, ikasketetako azken ikasturteetan dauden 20-30 bat ikasleri aukera ematen diegu udan 2-3 hilabetez enpresan lan egiteko, lan egitea zer den ikas dezaten.
- Berriki, inguruko enpresen foroa sortzeari bultzada eman diogu, zenbait eremutako esperientziak elkartrukatzeko, eta, esaterako, prestakuntzaren inguruan sinergiak baliatzeko; izan ere, mikroenpresa askok ez lukete horrelako aukerarik izango fororik gabe.
- Industria Segurtasuna eta Higieneari buruzko gutxieneko prestakuntza emateko prestakuntza-modulua abiarazteko lankidetzak; Bergarako Lanbide Heziketako Zentroan beharrezko baliabideak eskuratzen ari dira, eta inguruko enpresetako langileen prestakuntzarako ere balio dezakete. Mikroenpresa askori segurtasunari buruzko oinarritzko kontzeptuak eskaintzea.
- DBHko ikasleen orientatzaileekin lankidetzan aritzea, enpresan bertan bilerak eginda.
- Ikasleek enpresara bisitaldiak egitea, bertatik bertara ezagutzeko.
- Langileak birziklatzeko ikastaroak egiteko aukera,...
- Jendearen arteko komunikazio zuzena, esperientziak, sentimenduak, ikuspegiak eta abar elkartrukatuta.
- Nazioartekotzea: Mexikon instalazio berria ezartzeko prozesuan, Bergarako zentroko ikasle ohiak funtsezko oinarri izaten ari dira; lan horrekin, jakintza tekniko soila baino askoz ere gehiago eskatzen zaie ikasle ohi horiei.
- Eta abar.

Esperientzia hori guztiz positiboa izan da guztiontzat: Eskolarentzat-Enpresarentzat- Gizartearentzat.

Gaur egungo erronka honako hau da: bide horri eustea. Errealitateak erakusten digu gaur egun jendea behar dela, 40 urtetik gorako lan-bizitza osoan Etengabeko Prestakuntzaren zikloa betetzeko gai den jendea, ez eskulana soilik. Jakintzaren enpresetan ari gara, jakintza jendearengan dago, eta jendeak jakintza hori garatzeko gai izan behar du.

Iraganeko kontuak dira makinari lotutako pertsonak. Gaur egun, merkatuak ekoizpen doitua (Lean Manufacturing) eskatzen digu, lanpostu edo teknologia ezberdinetara egokitzeko malgutasuna edo gaitasuna, baita talde autokudeatuak ere, non segurtasuna edo ingurumena planifikatu behar den, ratioak sortu, ratioak ebaluatu, grafikoak, estatistikak, Paretoen diagramak, Ishikawak, PDCAk ezarri..., baita etorkizunak

eskatzan digun oro ere; enpresaren bilakaera baldintzatua dago kolektibo horren aurrera egiteko gaitasunarekin, guztiok batera betiere.

Horretarako, Lanbide Heziketak egokitu egin behar du Produkzio Teknologietara eta Kudeaketa Sistemetara, eta etorkizuneko langileengan jakintza zehatzak baino gehiago GAITASUNAK garatu behar ditu; aldi berean, langile horiek honako galdera hauek izan beharko dituzte buruan, etengabe: zertan hobetu dezaket? Nola? Galdera horiei erantzuteko tresnak izan behar dituzte, eta erantzun horiek gauzatzeko metodologiak eta ahalmena.

Ekintzaile izateko oinarri izan daiteke, iraganeko urteetara atzera eginda, prestakuntzaren maila hori izan baitzen egungo enpresa-sarearen eragilea. Ezin dugu irudikatu guztiz tertziarizatutako gizarte bat; industria behar-beharrezkoa da, eta horregatik, baita industria hori bultzatu, eutsi eta garatzen duten pertsonak ere.

Hortaz, etorkizuneko gure langileen hasierako prestakuntza oso garrantzitsua izango da, baina hori bezain garrantzitsua edo are garrantzitsuago izan daiteke enpresetako langileen etengabeko prestakuntza, prestatu, egokitu, birziklatu edo dena delakoa egin dezaten; hori horrela izanik, Lanbide Heziketako Zentroen eta Enpresen arteko loturak are estuagoa izan beharko du, eta horretaz gain, ausartak izan behar dugu. Prestakuntza espezifikokoak identifikatu behar ditugu, enpresak etorkizuna izateko ezinbestekoa den lehiakortasun-abantaila lortzen lagunduko diguten kolektibo espezifikoei begira.

Bada beste erronka bat ere, pixkanaka-pixkanaka lortzen ari garena, gainera; hain zuzen ere, Lanbide Heziketaren eremuan, eta batik bat, industriarekin loturikoan, emakumea txertatzea. Hala ere, jauzi handia egin behar dugu berehala, ez baita aukera bat, premia edo betebeharra baizik.

Ezin dugu alde batera utzi etorkizun hurbilak ekarriko digun hau ere: langile etorkinen prestakuntza; horientzat plan bereziak prestatu beharko dira, baita titulazioak ere, gaur egungo enpresen errealitatean txerta daitezten.

Lanbide Heziketako Zentroekin IRAGANEAN eta GAUR EGUN izandako esperientzia? GUZTIZ ARRAKASTATSUA.

ETORKIZUNA? ERABAT BAIKOR; dena den, orain arte bezala (edo hobeto) lan egin behar dugu (Enpresak, Gizarteak-Erakundeek eta Lanbide Heziketako Zentroek), informazioa eta jakintza etengabe elkartrukatu, baina askoz ere arin eta azkarrago, gutxienez beste 100 urtez ere hazten jarrai dezagun. Alabaina, etorkizuna hementxe dago, eta lasterka egin beharko dugu.

Juan Jesús ALBERDI